

E.H.E. 1986-rako PROGRAMAKETA

1. TALDEAREN SENDOKETA

Azken hilabete hauetan zenbait lorpen egin ditugu. Dena den, hau ez da, ezta gutxiago ere, nahiko. Lortu behar dugu, ahal den neurrian behintzat, taldea hedatzea eta sendotzea era antolatu eta programatu baten bidez.

Hiru izan daitezke landu beharreko bideak:

1.1. Talde eta jende berria

EHE benetazko dinamika bat hartzen doan eran, orduan, hurbilduko zaigu jendea eta sortuko dira talde berriak. Dena den, jendearengana jo behar dugu zuzenean, eta batez ere gazteengana.

Agian ez egokiena, baina, hasteko bide bat hitzaldiena da. Hitzaldiak ahal den herri, instituto eta euskaltegi gehienetan.

Bestalde, aspalditikan martxan jartzeko genuen formaziorako mintegi hori martxan hastea suposa dezake honek, jakitunek hitzaldiatarako edukia eta materiala prestatu beharko bait dute.

Hitzaldiena normalki koinazo bat izaten denez, komenigarri litzateke audiobisuala bat prestatzea. Horiela material polit bat edukiko genuke, hitzaldiak ematea errazago litzateke eta jendearengana aiseago iritsiko ginateke.

1.2. Kontaktoak gehitu eta hobetu

Orain arte aritu gara lan honekin, baina saltoka, ez sistematikoki. Mapa bat egin behar dugu gure gaurko egoera benetan zein den ondo jakiteko: nora iristen garen eta nora ez, zein herrietan euskara talderen bat dagoen eta zeintzuetan ez.

Ondoren, programatuz eta sistematikoki, iristen ez garen herri hoietan kontaktoak lortzen saiatu (taldea antolatzea posible bada, hobe). Honetarako, kontaktu personalez gain, lehen aipatutako hitzaldiak erabiliko genituzke.

Era honetan, baita ere, euskara inguruan mugitzen diren beste taldeekiko harremanak gehitzen joango gara.

1.3. Azpiegitura sendotu

Programaketa honetan planteatzen ari garen lana handia da. Orain gauden bezala ez da erraza izango guzti hau aurrera eramatea. Taldea indartu beharra dago, eta indartzeko bide bat jendea liberatzea da. Probintzi bakoitzean liberatu bat lortu behar dugu (osoa ez bada, erdia) eta Gipuzkoan beste bat.

Beraz, dirua behar dugu. Dirua lortzeko bideak izan daitezke:

- Kuotak igo: Gipuzkoan, 1000 pztako kuota kobratuz, hiruhilabeteroko sarrera 200.000 pztakoa izaten da. Kuota 500 pzt. igoz, beste 100.000 pzt. jasoko genituzke. Beste 70 kuota berriekin 2. liberatuarentzat iristen zaigu.
- Kuota berriak:
 - Taldea dagoen herrietan, betiko bideak erabiliz, bazkide berriak lortu.
 - Euskaraz taldeak dauden beste herrietako jendearekin hitzegin bazkideak lortzeko.
 - Dei bat Argia eta Eginen.

2. TALDEAREN IZENA BERRINDARTU

Gaur egun EHE-k ez dauka kalera garai batetan zeukan oihartzun eta ospea. Lehen EHE izenak berak zerbait esan nahi zuen, gaur egun, egia esan, gauza handirik ez.

Bestalde, euskararen erreibindikazioa egun konkretu batzutarra (korrika, kilometroak..) mugatzen ari zaigu. Hautsi egin behar ditugu muga horiek. Lortu behar dugu euskararen erreibindikazioa eguneroko bizitzan nabarria izatea.

Bi izen daitezke bideak taldearen izena eta euskararen erreibindikazioa kale mailan indartzeko:

- 2.1. -Propaganda panel handi horiek, taldearen izena adieraziko duten txartel handiz estali (txartel hauek ipini daitezke beste edozein horma edo lekuan).
- Berriro ere eta sistematikoki -hilean behin- erdaraz dauden errotoleak zirriborratu.

-Catalunyan bezala, postalak atera eta erabili.

2.2. Ekintza puntual erraz eta oiartzundak. Ekintza puntualekin bi helburu batetzea lortuko dugu; aipatutakoa, hau da, taldearen izenak oiartzuna edukitzea, eta, egoera konkretu bati erantzutea. Ekintzak izan daitezke;

-Renfe: Elkarrizketa bat eskatu, epe bat eman eta, deialdi publikoa egin ondoren, ekintza.

-Zinema: Lehen onartu zen bezala Jaurlaritzaren subentzioa duen pelikula bat bahitu dezakegu, edo, errazago, pelikula hori botzen ari direnean (erdaraz, noski), mautu dezakegu proiektorea estali, panfletoak bota eta ohiukatuz.

3. LAN ETA KANPAINA LUZEAK

Aurreko puntuetan aipatu diren lanetara mugatuz gero, taldea motza eta herrera geldituko litzateke. Taldeak, agian momentuko oiartzuna edukiko ez duten lan eta kanpaina luzeei eutsi behar die. Ezin gara une eta gauza puntualetan gelditu, behar dugu linea bat mantendu arazo sakonari irtenbide bat eskeini nahi badiegu.

-Langileria: Hasiak gara lehendabiziko kontaktuekin. Sindikato guztiekin (UGT ezik) hitzegiteko asmoa dago eta, horrela, poliki poliki, mundu honetan eragin.

-ETB: Oraingoan, firma bilketarekin jarraitzen dugu.

-Administrazioa: Kurtso hasieran pentsatua genuenarekin hasi gaitzake. Agian interesantea litzateke denuntziak berehala hastea.

Hauetaz aparte badaude beste zenbait lan, adibidez: aurrera! aldizkaria argitaratu, muga gainditzen joan Ipar eta Egoaldearen arteko harremanak gehituz, ...

EGINKIZUNAK ETA EPEAK

- Programa hau aurkezteko urtarrilak 18-an Nazionala Donostian. Bihilabetero Nazional bat egingo da programaren martxa aztertze-ko. Martxoan Bilbon, Maiatzean Gasteizen eta, azkenik, Uztailan Iruñean (UEU-n).
- Hitaldietarako materiala. Pertsona bat (edo bi) arduradun izene datzen dugu eta honek talde bat osatuko du. Urtarrila 31rako ma-teriala prest egongo da (lan intentsiboa egin ezker, lor daiteke).
- Probintzi bakoitzako arduradunek mapa eta, bai kontaktu eta bai hitzaldietarako, hasierako programa osatuko dute urtarrila 31rako.
- Otsail 8an probintzi guztietako hizlariak Gasteizen biltzen gara materiala ezagutzeko.
- Urtarrila eta otsaila, bi hilabete hauetan lortu behar dira kuo-berriak. Martxoak 1-rako eduki behar ditugu, beraz, ordurako Gi-puzkoan 70 bazkide berri.
- Propaganda panel handiak estaltzea posibilitateen aruera egingo da.
- Espria erabiltzeko; 10-15aren arteko astea.
- Lehenengo ekintza handia Renfekoa izango da. Nazionala egin ondoren eskutitza bidaliko zaie, deialdia otsailaren 3. astean, ekin-tza 22-an.
- Otsailaren 15rako firma bilketa egingo.



**EVSKAL HERRIAN
EVSKARAZ**